



SACHARUNA

**Shimikunapa sachata
kamankapak minka**

BASA

**Hizkuntzen oihana
zaintzeko auzolana**



RIKSICHIY: Shimikunawan kawsashka
AURKEZPENA: Biografia linguistikoak

Miren-Ayanaya

Etxe erdaldun batean jaio nintzen. Guraso biak erdaldunak dira, Euskal Herrian jaio eta hazitako erdaldunak. Aitak beti izan du euskara ikasi ez izanaren pena, eta argi zuen bere alabak euskaldunak izango zirela. Amak, aldiz, ez omen zuen horren argi. Amaren jaioterria Nafarroa hegoaldeko herritxo bat da, eta bertan euskarafobiaren zantzua dago oraindik ere.

«Bazkalorduko hitz-aspertuan ari ginela, amak zera esan du: *“Cuando yo era pequeña, el euskara no existía”*. Patxadatsu esan du, ogia zatitu bitartean. Hori entzutean, ahizpa eta biok harrituta begiratu diogu elkarri. Segituan galdetu diogu amari ea zer esan nahi duen horrek. *“Quiero decir que cuando yo era pequeña no conocía el euskara, para mi el euskara no existía”*.»

Giro erdaldun hori D ereduak arrakalatu zuen. Publifikatutako ikastola batek euskaldundu gintuen, bai ni eta bai guraso erdaldunen seme-alabak ziren ikaskideak ere. Ikastola euskaraz hazteko guneguz seguruak izan zen; garrantzi handiko arnagune ñimiñoa. Hori dela eta, ikastolatik instituturako aldaketa bortitza izan zen; institutuan euskararekiko jarrera linguistiko zeharo bestelakoa topatu bainuen. Garai hartan hasi zitzaidan euskaltzale sena pizten. Geroago, unibertsitatean, Euskal Herriko txoko ezberdinetako lagunekin elkartu eta euskalkiekin elkarbizitzeko aukera izan nuen; orduan loratu zitzaidan euskaltzaletasuna.

Euskara eta gazteleraz gain, ingelesa eta alemana ere ikasi izan ditut. Alemanarekin harreman laburra izan nuen, ikasten hasi eta pare bat urtetara utzi bainuen. Ingelesarekiko nire harremana luzea izan arren, ez da inoiz estuegia izan. Bada, ordea, beste hizkuntza batekin izandako hartu-eman berezia; kitxuarekin izandakoa.

Ekudorrera bidaiatu nintzenean erabaki nuen kitxua ikasten hastea, jakin gabe zeharo maiteminduko nintzela. *Tinkunakuy* erakundean ibili nintzen eta, bertan, Arawi-Gudari ezagutu nuen. Euskal Herrira bueltatu nintzenean, *Runayachay Qichwa Amawtana* akademian hasi eta Arawi-Gudari izan nuen kitxuako irakasle. Aurrerago kitxua-euskara trukea etorri zen. Duela hiru urte imajinatu ere ez nuen egingo hizkuntza horrek ekarriko zidan guztia, ezta harekin haurridetuko nintzenik ere.




Arawi-Gudari

Hogei urterekin hasi nintzen kitxua ikasten, Tinkunakuy izeneko erakundean. Bertako irakasleak Ekuadorreko hainbat tokitako pertsonak ziren, batez ere Imbabura eta Chimborazo probintzietakoak. Aldi berean, inoiz ere pentsatu ez nuen zerbait egiten aritu nintzen: kitxu-hiztunekin adiskidetasun-harremanak ezartzen, hain zuzen ere (gehien bat Imbaburako kitxuekin, Quito eta Otavaloren arteko hurbiltasuna dela eta). Modu horretan ikasi nuen kitxua urtebetean: adiskidetasunaren bidez, hau da, elkar babestuz eta lagunduz.

Urte hura amaituta, hizkuntzaren eta Kitxua nazioaren historia aztertzen aritu nintzen, eta, aldi berean, kitxua irakasten. Orduan hartu nuen kontzientzia linguistikoa, eta kitxuaren kamak (zaindari) bihurtzea erabaki nuen; kichwakamak (kitxuazale).

Alabaina, ikasi nuen lehen hizkuntza gaztelania izan zen. Hizkuntza hori amaren familiak irakatsi zidan, eta giro horretan hazi nintzen nerabegarora arte. Ekuadorreko hezkuntza formal guztia gaztelaniaz egiten da, eta, beraz, eskola, ikastetxea eta unibertsitatea erabat gaztelaniatuak daude: Ekuadorreko gehienek zalantzan ere jartzen ez dutena. Zalantzan jarri ohi dena, aldiz, ingelesa ikasteko ordu kopurua izaten da. Lehen eta bigarren hezkuntzan ingeleseko eskolak nituen, baina unibertsitatean nengoela sentitu nuen hizkuntza hori ikasteko beharra; hasieran arrazoi ekonomikoengatik eta ondoren arrazoi kulturalengatik. Bestalde, latina ere ikasi nuen. Unibertsitatean oinarritzko maila bat izan arte ikasi nuen latina, inbaditu gintuen Europaren sustriak ezagutzeko asmoz. Niretzat, ingelesez eta latinez jakitea inbaditzailea ezagutzeko modua da.

Unibertsitatean egon eta urtebetera, Ekuadorren, Miren-Ayanaya ezagutu nuen, lagun euskalduna. Eta bi urte geroago, kitxua eta euskara ranti-rantia (trukea) egiten hasi ginen. Horrela, urtebete daramat euskara ikasten, apurka-apurka. Nire ustez, badut hizkuntza horren oinarritzko ezagutza, eta nire nahia da bi urtetan euskara hiztun osoa izatea: euskalduna. Euskara miresten dut, erresistentzia-hizkuntza delako European eta, beste askok ere uste bezala, Europako hizkuntza indigena dela uste dut.



SACHA-BASA: Pachamamapash shimipash BASA-SACHA: Lurra eta hizkuntza

Zuhaitzek zainak dituzte lurrean eta zainak zeruan: sustraiak lurrean eta adarrak zeruan. Guk zeruko zainak besterik ez ditugu ikusten, baina lur azpikoak sendoak dira, eta zuhaitzari bizia eta izana ematen diote.

Zuhaitzek bezala, herriek ere zainak dituzte. Herri bakoitzak badu bizi den lurraldeari lotzeko eta hura ulertzeko berezko era. Eta hizkuntza da herriek haien lurraldeetara errotzeko duten zain sendoa. Beraz, hizkuntza gizakiok lurrarekin hitz egiteko dugun modua ere bada; hizkuntza basoarena da, basatia.

Basoak espazio sakratuak dira izpiritualtasun kitxuan. Basoan edo basotik gertu bizi dena pertsona jakintsua da, naturarekin (ez gizakiarrarekin) elkarbizitzeko beharrezko indarrak ezagutzen baititu. Berarekin, naturarekin, elkarbizi behar dela gogorarazten digu, haren parte izateko eta menderatzen ez saiatzeko. *Sacharuna* edo basatia izatea ez da lotsabidea, pertsona jakintsua izatea baizik.

Tawantinsuyun (Andeetako Amerika) europarrek "salvaje" hitza mespretxu eta irain gisa erabili dute. "Indio salvaje", era berean, "indio civilizado" ideia eraiki nahi duen iraina da; hau da, Apyayala (Amerikako lurraldea) kontrolatua eta gobernatua izatea ahalbidetzen duen "indioa".

Zenbaiten begiradapean, gure herriak (Kitxua herria eta Euskal Herria) basatiak izan dira eta, oraindik ere, badira. Basatiak gara ez garelako otzanak, erresistentzian dihardugulako eta etxekotuak izateari uko egiten diogulako. Gure begiradapean, basatiak gara naturarekin elkar hartzen dugulako eta ez diogulako utzi nahi errotuta egoteari. Zain sendorik gabe ez baitago ez bizirik ez izanik.

Zientifikoki frogatu izan da bioaniztasun handiena gordetzen den eremuetan hizkuntza-aniztasun handia dagoela. Hizkuntzak lurrari errotuta dauden froga dugu hori. Beraz, hizkuntzen eta naturaren defentsa bat eginda doaz. Izan ere, naturako elementu bat desagertzeko arriskuan badago, eta, are okerrago, desagertzen bada, naturaren oreka kaltetzen da. Modu bertsuan, hizkuntza bat gutxitua bada, gizadiaren oreka (eta natura berarena ere) kaltetua izaten da. Hizkuntza gutxituen defentsa ez ote da ba izango tresna ahaltsua planetaren jasangarritasunera bidean?




MAKIPURAY: minkapash auzolonapash
ELKARLANA: Auzolana eta minka

Basoak zaindu eta babestu egin behar ditugu, eta hori egiteko modu bat elkarlana edo *makipuray* da, hots, talde-lana. Bai euskal kulturari, bai kultura kitxuan, kolektiboki lan egiteko modu bertsua dugu: auzolana edo *minka*.

Miren-Ayanaya: «Auzolana zer den azaltzea ez da kontu makala. Terminoa ezagutzen ez duen bati azaldu beharko banio, antzinako garaietatik datorkigun lan-sistema dela esango nioke. Komunitateko kideen arteko elkarlanean oinarritzen dela ere aipatuko nioke. Tira, agian lan-sistema baino, herriak antolatzeke eta bere burua eratzeko duen modua dela esango nioke. Eta sasidefinizio horri amaiera borobila emateko, auzolana euskal nortasunaren zainetako bat dela botako nioke.»

Arawi-Gudari: «*Minka* "lan komunitarioa" esan nahi duen hitz kitxua da, eta komunitatearen ongizatearen alde egiten den lana da. Gainera, *minkaren* bidez, behar komunak dituzten pertsonen arteko batasuna eraiki eta sendotzen da. *Minkak* berak "komunitatea" sortzen du, nazio indigenak suntsitu nahi dituen estatu kolonialaren aurrean. Hala, *minka* komunitate indigenen ber-existentzia ahalbidetu duen mekanismoa da; hau da, Apyayalako (Amerikako) hizkuntzetan komunikatzen diren komunitateena. Garrantzitsua da aipatzea *minka* kitxua hizkuntza erreproduzitzeko espazioa izaten dela.»

Auzolanaren eta *minkaren* baitan elkarren arteko beharraren sena eta konpromiso kolektiboa daude. Biak dira gutasunetik nitasunera eta nitasunetik gutasunera aske eta aski izateko bideak. Beraz, *minkaren* eta auzolanaren bidez, kitxuok eta euskaldunok "ni" indibidualak izateari utzi eta "gu" izatera igaro gaitezke. Eta elkarlana herrigintzarako bitarteko nagusia bada, euskalgintzarako eta "kitxuagintza"-rako bitartekoa ere bada. Soilik "gu" izanik zainduko dugulako hizkuntzen basoa.



SACHAMAN KAYACHIY BASATZEKO DEIADARRA

Lan hau basatzeko deiadarra da:

Gaur, XXI. mendean, Ekuadorren hautetsitako presidente berriak Aparicio Caicedo izendatu du aholkulari presidentzial. Haren twitter kontuan honakoa argitaratu zuen: “Qué feo que es el quechua, rivaliza con el euskera en atrocidad fonética”. Ezjakintasun hura gainditu behar dugu. Lagunok, abia gaitezen tokian tokiko hizkuntzak berreskuratuzera!

Europak Inka Estatu inbaditu zuen garaian, apaiz batzuk harritu egin ziren ikustean bazirela hiruzpalau hizkuntza baino gehiago hitz egiten zituzten herriak. Globalizazioaren aurrean, ahora ditzagun lurrari errotutako hizkuntzak. Horiek baitira bizi garen basoak ulertzeko aukera emango digutenak. Horiek baitira hizkuntza basatiak. Lagunok, urrun gaitezen elebakarkeriatik, har dezagun itzulerako bidea eta izan gaitezen eleanitz.

Hitz-lapurraren ipuinean bezala, hitzak lapurtzen badizkigute ere, basoko hizkuntzen hiltunen artean auzolana egiten badugu, berreskuratu ahal izango ditugu. Basatasuna da helmuga, eta auzolana bidea. Basatu gaitezen elkarrekin, kitxuok eta euskaldunok!

Rimayta shuwak runamanta yuskara ñawparimaypishinaka ñukanchik ninakunata shuwakpipash sacha shimita rimakkunapura minkata rurashpa kawsachiyta ushashunmi. Sacharuna tukupashunchik qichwayukkunapash yuskarayukkunapash!

*Tawantinsuyupi, 22niki puncha, aymuray killa, 5528niki wata
Euskal Herrian, 2021eko maiatzaren 23an*

Miren-Ayanaya Uriarte Crespo
Arawi-Gudari Ruiz Villacis

